IZENAK ETA IZEN MOTAK

Zer da IZENA?

Izen Sintagmaren[1] ardatza da.

Zertarako balio du ?

Pertsonak, animaliak, gauzak, sentimenduak… izendatzeko balio du.

Adibidez : andre, Mikel, katu, ilargi, Irun, zapata, zaldi…

ANDRE hori nire bizilaguna da. ANDRE= ardatza
IS AS

MIKEL zurekin irten da. MIKEL= ardatza
IS AS

KATU beltza kalean dago. KATU= ardatza
IS AS

ILARGI betea izan da bart. LARGI= ardatza
IS AS

Kontutan izan behar dugu izenak mota desberdinetakoak direla eta taula honen arabera sailka daitezkeela:



LIVEWORKSHEETS

Goazen bada, elementu hauek banan bana ikastera:

1. IZEN ARRUNTA: kategoria bereko edozein gauza edo izaki izendatzeko erabiliak.

Adibidez: katu esaten dugunean, edozein katuri egiten diogu erreferentzia.

2. IZEN BEREZIA: izaki konkretu bati erreferentzia egiteko erabiltzen da.

Adibidez: "Miren" persona izena erabiltzen badugu, zehazki zein pertsonari buruz ari garen badakigu.

3. IZEN ZENBAKARRIAK: zenbatu daitezkeen izen arruntei esaten diegu.

Adibidez:

4. IZEN ZENBAKAITZAK: zenbatu ezin daitezkeen izen arruntei esaten diegu.

Adibidez:

LIVEWORKSHEETS

5. IZEN ZENBAKAITZ NEURGARRIAK: zenbatu ezin ditugunak baina neurtu bai.

Adibidez:

- kiloka neur daitezkeenak: irina, azukrea, kafea…
- litroka neur daitezkeenak: ura, esnea, olioa…

6. IZEN ZENBAKAITZ NEURGAITZAK: ezin ditugu zenbatu ezta neurtu ere.

Adibidez: sentimenduak. Nola marraztuko zenituzke?

…ez ahaztu, bai IZEN BEREZIAK baita IZEN ARRUNTAK ere bi multzotan bana ditzakegula: BIZIDUNAK eta BIZIGABEAK.

BIZIDUNAK: pertsonak eta animaliak.

BIZIGABEAK: gainontzeko gauzak (landareak barne)

Kontutan izan beharrekoa

IZEN BIZIDUNAK eta BIZIGABEAK deklinatzean desberdintzen dira.

BIZIGABEAK: Eskola	BIZIDUNAK: Mutila
Non? Eskolan	Norengan? Mutilarengan
Nondik? Eskolatik	Norengandik? Mutilarengandik
Nora? Eskolara	Norengana? Mutilarengana
Noraino? Eskolaraino	Norenganaino? Mutilarenganaino

LIVEWORKSHEETS

1. ARIKETA: Sailka itzazu jarraian azaltzen diren izenak. (Sailkapena honela egin behar da:" **gatz**: izen arrunta, zenbakaitza, neurgarria, bizigabea.)

Zuberoa _____

lur _____

Mikel _____

orri _____

bero _____

beldur _____

Donostia _____

katu _____

landare _____

Karla _____

alkandora _____

lore _____

zeru _____

eskola _____

sagardo _____

haur _____

haritz _____

Lorea _____

gorroto _____

(Liburua: 87. orrialdea, 4. eta 5. ariketak)

LIVEWORKSHEETS

DEKLINABIDEA

NUMEROA → KASUA ↓	MUGAGABEA (-)	MUGATU SINGULARRA (-a)	MUGATU PLURALA (-ak)
NOR			
NORK			
NORI			
NON / NORENGAN			
NONGO			
NORA / NORENGANA			
NORANTZ / NORENGANANTZ			
NORAINO / NORENGANAINO			
NONDIK / NORENGANDIK			

Deklina itzazu hitz hauek: mendi, jaun, haran, neska.

LIVEWORKSHEETS

LEXIKOA

HITZ ERATORRIAK – EGILE ATZIZKIAK

GOGORATU!!!



HITZ ERATORRIAK*

Hitz bakunetatik abiatuz hitz eratorriak sortzeko hiru modu daude:

AURRIZKIDUNAK	ARTIZKIDUNAK	ATZIZKIDUNAK
Aurrizkia + hitza	Hitza + artizkia	Hitza + atzizkia
BIR- + sortu: BIRsortu	Egin + -RA-: eRAgin	Irun + -dar> Irundar

EGILE-ATZIZKIEK ekintza edo lanbidea adierazten dute.

- (l)ari: abeslari, dantzari, bertsolari…
- le/-tzaile: idazle, irakurle, sortzaile…
- gin/-gile: hargin, langile, egurgile…

(Liburua: 90. orrialdea, 6., 7. eta 8. ariketak)

LIVEWORKSHEETS